

2022KO AZAROAREN 7TIK 11RA · GOLEM BAIONA

XVII

zinema erakusketa

myndua eta giza  
eskubideak 

D.L. NA. 2669-2018

DISEINUA: CARMEN ZUDAIRE

# GOIZEKO HEZIKETA SAIOAK

## Erdi Mailako Ikasteak

Saioetan, **filmak emango dira**, gaiari sarrera emateko eta eztabaida sortzeko ikasleekin, saiorako gonbidatutako pertsonen azalpenaren bidez.



### AZAROAREN 8n ASTEARTEA

#### MEDITERRÁNEO

*Marcel Barrenarena  
(Espainia, 2021, 112')*

Bi soroslek, **Óscarrek** eta **Gerardek**, Greziako Lesbos uhartera bidaiatuko dute, Mediterraneoko uretan itota hil den mutiko baten argazkiak zirrara eragin baitie. Iritsitakoan, ordea, are lazgarriagoa den errealitatea ikusiko dute. Beste taldekide batzuekin, zeregin bat betetzearen alde borrokatuko dira, behar duten pertsoneri babesa emanez.

#### SARIAK

Goya sariak: Argazki Onena, Produktzio Zuzendaritza Onena eta Abesti Onena (2021).

### AZAROAREN 9n ASTEAZKENA

#### TORI Y LOKITA

*Jean-Pierre Dardenne eta Luc Dardennerena (Belgika, 2022, 82')*

Egungo Belgikan, Afrikatik bakarrik iritsi ziren mutiko batek eta neska nerabe batek beren adiskidetasun garaiezina beren erbestealdiaren baldintza zailen aurka jarriko dute.

#### SARIAK

Cannesko Jaialdia: 75. Urteurrenaren Saria (2022).

### AZAROAREN 10n OSTEGUNA

#### GURUMBÉ. CANCIONES DE TU MEMORIA NEGRA

*Miguel Ángel Rosalesena  
(Espainia, 2016, 72')*

Amerikaren ustiapen komertzialarekin, Afrikako milaka pertsona Espainia eta Portugalera ekarri zituzten, esklabo moduan saltzeko. Haietako batzuk kolonietara eraman zituzten, eta beste batzuk hirietan gelditu ziren. Dokumentalak ahanzturatik ateratzen du Afrikako esklabotzaren historia Iberiar penintsulan, beste talde marjinal batzuekin batera, esklaboek gure historian eta kulturen izan zuten protagonismoa nabarmenduta.

### SOLASALDIAK SOS ARRAZAKERIA NAFARROAREN ESKUTIK

Arrazakeriaren kontrako elkarte bat da, eta bere helburu nagusiak eskubide-berdintasunaren defentsa eta diskriminazio ororen kontrako borroka dira. Hauek parte hartuko dute: **ALEYDA GASPÁR GONZÁLEZ**, irakaslea-ikertzailea Mexiko Hiriko Unibertsitate Autonomoko (UACM) Komunikazio eta Kultura Akademian, eta **MELISSA LÓPEZ SOMARRIBA**, Nikaraguako Unibertsitate Nazional Autonomoko Garapenerako Komunikazio Ikasketak. Erbereratu politikoa da.



**AZAROAREN 7n  
ASTELEHENA**

**19:30ean / 6,00€**

ADISKIDETASUNA,  
DUINTASUNA ETA JUSTIZIA

# LOS REYES DEL MUNDO

*Laura Mora Ortega (Kolonia, 103'. 2022)*

## GONBIDATUA

### ZARYS FALCON

Zarys Falcon abeslaria, performerria eta ikertzaile artistikoa da, kolonbiarra. Montes de María azpieskualdekoa da, Kolonbian sarraski eta lekualdatze behartu gehien izan duen eremuetako batekoa. Duela lau urtetik Iruñean bizi da, bertan Katanga Dub musika-proiektua sortu du eta artista gisa garatzen ari da arte garaikidean. Bere ibilbidean, bere interpretazioen benetakotasuna nabarmentzen da, munduko zenbait tokitan ibiltzea eta bere erbestean birsortzea ahalbidetu diotenak, natura "menditar" batetik, termino hori duintasun-iturri moduan aldarrikatuz.

## SINOPSISIA

LOS REYES DEL MUNDO desobedientziari, adiskidetasunari eta erresistentzian dagoen duintasunari buruzko filma da. **Rá, Culebro, Sere, Winny** eta **Nano** Medellingo kaleko bost mutil dira. Erresumarik gabeko bost errege, legerik gabek, familiarik gabek, bidaia bati ekingo diotenak lur aginduaren bila. Ipuin iraultzailea, klan basati eta kutun baten bidez, errealitatearen eta zorakeriaren artean ibiltzen dena. Ezerezerantz bidaia, non denetik gertatzen den.

**LAURA MORA ORTEGA.** (Medellin, Kolonia. 1981) Melbourneko RMITen Zinema Zuzendaritza eta Produktzioa ikasi eta gero, WEST (2004), BROTHERHOOD (2007) eta SALOMÉ (2011) film laburrak idatzi eta zuzendu zituen. 2012an, beste batekin batera, ESCOBAR, EL PATRÓN DEL MAL telesaila zuzendu zuen, eta 2014an, Caracol TVrako Antes del fuego telefilma filmatu zuen. Netflixeko FRONTERA VERDE (2019) eta EL ROBO DEL SIGLO (2020) sailetarako kapituluak ere zuzendu ditu. Bere lehen film luzeak, MATAR A JESÚS izenburukoak, 20 sari baino gehiago lortu zituen hainbat jaialditan.



## AZAROAREN 8n ASTEARTEA

18:30ean / SARRERA LIBREA

ELKARRIZKETAK  
GATAZKAN

# MALDITA, A LOVE SONG TO SARAJEVO

*Raúl de la Fuente eta Amaia Remírez (Espainia, 27'. 2022)*

### GONBIDATUAK

**RAÚL DE LA FUENTE** eta **AMAIA REMÍREZ**, dokumentalaren zuzendariak.

### SARIAK

Roel de Oro saria, Semana de Cine de Medina del Campo 2022 (SECIME) jaialdian, besteak beste.

### SINOPSISIA

Ez armen pisuak, ez historiaren oldarrek, ez eta mundu «garbia» nahi duten haien inbidiak ere ez dute lortu Sarajevo amaitzea, zeina egun inoiz baino indartsuago suspertzen ari den. **Božo Vreco** iraultzaileena da Balkanetako artisten artean. Ezin hobeto hezurramitzen du «hiri inozoaren» arima, eta bere jarrera konplexu-gabearekin zubi-lana egiten du iraganaren eta orainaren, emakumeen eta gizonen, eta jatorrien eta eskualdeen artean. **MALDITA, A LOVE SONG TO SARAJEVO** biziari eta bi hiriren arteko, Sarajevoren eta Bartzelonaren arteko, maitasun-istorioari egindako kantua da, bi hiri horiek une zailetan elkar aurkitzen jakin baitzuten, inoiz gehiago agur ez esateko.

**RAÚL DE LA FUENTE** eta **AMAIA REMÍREZ**. **Kanaki Films** sortu zuten 2009an. Beren azken film laburra, **UN DÍA MÁS CON VIDA**, Cannesen estreinatu zen, Sail Ofizialean, ikus-entzuleen saria lortu zuen Donostian, eta Zinemaren Europako Akademiaren saria, Goya eta Platino Iberoamericano sariak, animaziozko film onena izateagatik. **MINERITA** beren lehen film laburrak Goya saria lortu zuen, eta Oscar sarietan finalista izan zen. **MALDITA** zuzendarikide gisa egin duten lehen kolaborazioa da.



**AZAROAREN 8n  
ASTEARTEA**

**19:30ean / 6,00€**

TORTURA ETA TRATU TXARRAK

# KARPETA URDINAK

*Ander Iriarte (Espainia – Frantzia, 113'. 2022)*

## GONBIDATUA

**ANDER IRIARTE**, dokumentalaren zuzendaria.

## SINOPSISIA

**Anderrek**, beste pertsona askok bezala, aitak komisaldegi hartan benetan jasan behar izan zuena tortura izan zelako susmoa du. Susmo horiek argitze aldera, 1960tik 2014ra bitartean Euskadin izandako torturaren ikerketa proiektua ezagutu zuen, Eusko Jaurlaritzak egina Bake eta Bizikidetzeta Planaren esparruan. Ikaratuta ikerketa horretan kaleratutako emaitzengatik, proiektuan esku hartu zuten eta medikuntzan, psikologian, psikiatrian eta abokatutzan aritzen diren pertsonekin elkartu zen, eta haiek hainbat kontzeptu erakutsi zizkioten, hala nola “tortura psikologikoa”, “Istanbulgo Protokoloa” eta “hurbilpen estatistikoa”, eta iparralde globalean torturaren errealitatea azaldu zioten.

**ANDER IRIARTE** (Oiartzun, Gipuzkoa. 1986) Arte Ederren lizentzia eskuratu zuen Bartzelonako Unibertsitatean, eta Fikzioaren Zuzendaritzaren gradua ESCACen. Bertan, *LOS INOCENTES* (2013) film kolektiboan parte hartu zuen, Sitgesko Jaialdian estreinatutakoan, eta *ECHEVARRIATIK ETXEBERRIARA* (2014) dokumentala zuzendu zuen. Geroztik, dokumentalak zuzendu ditu telebistarako, esate baterako, *40/24* (2015) eta *20N EL DÍA DE LA IMPUNIDAD* (2015); *BIHAR DOC 13* (Culinary Zinema, 2018) film luzea, hori ere dokumentala, **Aitor Bezeziartuarekin** batera zuzendua; eta *OTSOKO* (2014), *SUMUD* (2015), *EMARRI* (2018) eta *MIROKUTANA* (2019) film laburrak.



## AZAROAREN 9n ASTEAZKENA

18:30ean / SARRERA LIBREA

IHESLARIAK



# OUR VOICES

*Natxo Leuza (Espainia, 18'. 2022)*

### GONBIDATUA

**NATXO LEUZA**, dokumentalaren zuzendaria.

### SINOPSISIA

**Fadia, Wais** eta **Emram XXI**. mendeko krisi humanitario okerrenetako baten infernutik ihesean doaz: Afganistango gatazka armatutik. Beren familien aurrezki guztiak gastatu dituzte, eta bizi arriskuan jartzen dute Europara iritsi ahal izateko. Bidaia horrek eraldatu egingo ditu, ordea, eta inoiz ez dira lehengoak izango. Greziako iheslari-esparruetara iristean, linbo antzeko batean gelditzen dira, etenaldian, desesperazio eta ernegazio antzeko batean, denbora gelditu egin dela eta beren biziak ez duela ezer balio sentitzen baitute. Ahotsa besterik ez zaie gelditzen. Oihu egin nahi dute eta munduari azaldu beraiek ez dutela errurik herrialde horretan jaio direlako eta, gutxienez, pertsonak bezala tratatzea merezi dutela.

**NATXO LEUZA** Nafarroan jaiotako zuzendari eta gidoilari da. Duela 15 urtetik baino gehiagotik ari da zuzendari, gidoilari, muntatzaile eta zinemako postproduktzio lanetan. Ibilbide luzea du dokumentalen arloan, eta proiektu ugari egin du lan munduko hainbat herrialdetan: Sierra Leona, Benin, Togo, Mauritania, Gambia, Uganda, Peru, Guatemala, El Salvador, Qatar, Haiti, Grezia, Ukraina... Zuzendari gisa, EL DROGAS film luzea egin du, Donostiako Zinemaldian estreinatu zena, eta lau film labur, BORN IN GAMBIA, N´DIAWALDI BOULY, OUR VOICES eta WHY. Nazioarteko jaialdi askotan jaso izan dituzte sariak bere filmek, eta mundu osoan banatu dira.



**AZAROAREN 9n  
ASTEAZKENA**



**19:30ean / 6,00€**

**MIGRAZIOA**

# TORI Y LOKITA

*Jean-Pierre Dardenne, Luc Dardenne (Belgika, 88'. 2022)*

## **GONBIDATUAK**

### **ALEYDA GASPAR GONZÁLEZ**

irakaslea-ikertzailea Mexiko Hiriko Unibertsitate Autonomoko (UACM) Komunikazio eta Kultura Akademian, eta **MELISSA LÓPEZ SOMARRIBA** Nikaraguako Unibertsitate Nazional Autonomoko Garapenerako Komunikazio Ikasketak. Erbesteerratu politikoa da. Biak ala biak **SOS ARRAZAKERIA NAFARROA**rekin lankidetzan aritzen dira. Arrazakeriaren kontrako elkarte bat da, eta bere helburu nagusiak eskubide-berdintasunaren defentsa eta diskriminazio orenen kontrako borroka dira.

## **SINOPSISIA**

Engungo Belgikan, Afrikatik bakarrik iritsi ziren mutiko baten eta neska nerabe baten adiskidetasun garaiezinak beren erbestealdiaren baldintza zailak gaingitu beharko ditu.

**JEAN-PIERRE DARDENNE, LUC DARDENNE** Jean-Pierre (Engis, Belgika. 1951) eta Luc Dardennek (Awirs, Belgika. 1954) bitan irabazi dute Urrezko Palmondoa Cannesen, **ROSETTA** (1999) eta **EL NIÑO** (2005) lanekin. Frantziako zinema-jaialdiak bere palmaresean sartu zituen, **EL HIJO**, (2002), **EL SILENCIO DE LORNA** (2008), **EL NIÑO DE LA BICICLETA** (2011) eta **EL JOVEN AHMED** (2019) lanengatik. 2014an, **DOS DÍAS, UNA NOCHE** lanak Europako Zinemaren Saria ekarri zion **Marion Cotillard** aktoreari eta Oscar sarietarako izendapena, aktore onena izateagatik.

## **SARIAK**

Cannesko Jaialdia: 75. Urteurrenaren Saria (2022).





**AZAROAREN 10n  
OSTEGUNA**

**18:30ean / SARRERA LIBREA**

**KULTUR  
IDENTITATEA GALTZEA**

# RAÍCES PERDIDAS

*Eymard Uberetagoena (Espainia, 25'. 2022)*

## **GONBIDATUA**

**EYMARD UBERETAGOENA**, dokumentalaren zuzendaria.

## **SINOPSISIA**

**Ma'di** herria paradigmatikoa da Afrikako beste herri askorentzat. Kolonialismoak bere politika- eta gizarte-egiturari eraso zion eta, gainera, hiru estatu desberdinetan bereizi zuen. Horrez gain, nagusiki gerraren ondorioz, koiuntura tradizionala azkar eta kontrolik gabe eraldatu zen, eta, hortaz, bere kultura arrisku handian dago. Dokumental honen protagonistek kultura leheneratzearen beharra nabarmentzen dute, baina, era berean, beren tradizioaren alderdi batzuk zalantzan jartzen dituzte.

**EYMARD UBERETAGOENA** Goi mailako teknikaria zinemako eta telebistako errealizazioan ESCIVIn, Ikus-entzunezko Komunikazioa Nafarroako Unibertsitatean eta masterra Argazkilaritzako Zuzendaritzan ESCACen. Urteekin, errealizazioaren, argazkilaritzaren eta edizioaren alorretan espezializatzen joan da. Gizarte- eta ingurumen-arloko gaiak dituzten zerbait proiektutan parte hartu du, editore, argazkilaritzako zuzendari eta zuzendari arituta, adibidez, RAÍCES PERDIDAS lanean, Ugandan filmatuan. Egun, ikus-entzunezko lana eta Nafarroako Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko graduko irakaskuntza bateratzen ditu. **Eymard** NAPAR Nafarroako Ikus-entzunezkoen Profesionalen Elkarteako kidea da, eta **Tripulante Produce** etxearen bazkide sortzailea.



# EL TECHO AMARILLO

## EL SOSTRE GROC

*Isabel Coixet (Espainia, 94'. 2022)*

### SINOPSISIA

EL TECHO AMARILLO lanak Lleidako Antzerki Gelako Kasua salatzen du, bere protagonisten bidez. 2018an, 9 emakumek salaketa aurkeztu zuten bi irakasle-  
ren kontra, 2001 eta 2008 artean, nerabeak zirenean, gertatu ziren sexu-abu-  
suengatik. Salaketa berandu iritsi zen, ordea, kasua preskribatuta zegoenean,  
eta amaitutzat jo zen.

**ISABEL COIXET CASTILLO**, (Bartzelona, 1960). Lizentziaduna Historian Bart-  
zelonako Unibertsitatean, lehenbiziko film labur zinematografikoak 1980ko ha-  
markadaren erdialdera filmatu zituen. 1988an debuta egin zuen gidoilari eta  
zuzendari DEMASIADO VIEJO PARA MORIR JOVEN lanarekin, eta 2000n **Miss  
Wasabi Films** bere ekoitzetxea sortu zuen. Zinema-zuzendari eta -gidoilari esp-  
painiar internazional eta ospetsuenetako bat da, eta 8 Goya sari irabazi ditu.  
Bere ibilbide osoari aitorza egiten dion saria eman zioten Málagako Jaialdian,  
2015ean, eta urte horretan bertan, gainera, Frantziako Kultura Ministerioaren  
Arteen eta Letren Ordenako Zaldunaren saria.

### SARIAK

Donostiako Zinemaldia: RTVE Beste Girada saria (2022).

### GONBIDATUA

**SAMARA VELTE**. 1991 Zarautz (Gipuzkoa). Graduduna Ikus-entzu-  
nezko Komunikazioan EHUn, eta  
Diskurtsoaren Ikasketetan espezia-  
lizatua Bartzelonako Pompeu Fabra  
Unibertsitatean. **BERRIA** egunkarian  
egin zuen lan 2018 arte. Geroztik,  
ikertzaile ari da EHUn, eta dokto-  
re-tesia egiten ari da gazteek euskal  
gatazkaz duten kontaketa-  
ren gainean. 2015ean, Rikardo Arregi saria  
jaso zuen, Kazetari Berrien katego-  
rian. 2Yo sí te creo. La cultura de la  
violación y el caso de sanfermines”  
(2019), “Nik sinesten dizut. Bortxake-  
taren kultura eta sanferminetako ka-  
sua” (2019) liburuak idatzi ditu.





## GONBIDATUA

### NELY NILUFAR SABERI

Madrilera 1980an iritsi zen, Teherandik (Iran), herrialde horretan teokrazia islamistak hartu zuelako boterea. Bere izaera zuzena giza eskubideen aldeko aktibismoaren bidez bideratu du. 2009an, beste kide batzuekin, Asociación Iraní Pro Derechos Humanos-España sortu zuen. Hainbat erakunderekin aritzen da elkarlanean, besteak beste: Amnesty International, Medicus Mundi, APDHE, Cultura de Paz, Tierra y Culturas... Urteak daramatza giza eskubideen etengabeko urratze basatia salatzen Irango Islamiar Errepublikari gaizki izendatuen. Emakumeen, disidenteen eta sexu-, erlijio- eta etnia-gutxiengoaren egoerari jartzen diu arreta.

## AZAROAREN 11n OSTIRALA

19:30ean / 6,00€

# NO BEARS

*Jafar Panahi (Irán, 107'. 2022)*

## SINOPSISIA

Bi maitasun-istorio paralelo, non ezkutuan dauden eta saihestezinak diren oztopoek, superstizioaren indarrak eta boterearen mekanikak bikoteen desirak zaputuko dituzten.

**JAFAR PANAHI** (1960 Mianeh, Iran) zinema-zuzendaria, gidolaria eta zinema-editorea da, Irango *New Wave* zinematografia-mugimenduari identifikatua. Nazioarteko aitortza lortu zuen EL GLOBO BLANCO (1995) bere opera primarekin, Cannesko Zinema Jaialdian, Irango film batek Cannesen irabazitako lehen sari garrantzitsua izan baitzen. Irango zinemagile eragin handikoenetakotzat jotzen da, eta, nahiz eta bere filmak sarritan debekaturik egon ziren herrialde horretan, nazioarteko zinema-kritikarien eta -teorikoen goraipamenak jasotzen jarraitu zuen eta sari ugari jaso ditu EL ESPEJO (1997), EL CÍRCULO (2000), FUERA DE JUEGO (2006)... lanekin. Irango bizimoduaren ikuspegi humanista nabarmentzen da bere lanetan, haurren, pobreen eta emakumeen zailtasunetan arreta jarritako. 2010ean atxilotu egin zuten eta Irango Gobernuaren kontra propaganda egiteaz salatu. Kartzelan sei urte igarotzeko zigorra eta 20 urtean filmak egiteko, atzerriara bidaiatzeko edo elkarrizketak egiteko debekua ezarri zizkioten. Apelazio baten emaitzaren zain zegoen bitartean, ESTO NO ES UNA PELÍCULA (2011), PARDEH (2013), TAXI TEHERÁN (2015), TRES CARAS (2018) eta NO BEARS (2022) egin ditu. 2022ko uztailaz geroztik espetxean dago, 2010an kartzelan sei urte igarotzeko jarri zioten zigorrarengatik.

## SARIAK

Veneziako Jaialdia. Epaimahaiaren Sari Berezia (2022).



ASKATASUNAREN  
ALDEKO BORROKA